

BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Gure enpresan garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroarekiko harreman onak edukitzea, gure diru-iturri nagusiak izango direlako. Diru sarrera onak edukitzeko garrantzitsua da gure produktua erostea, asko gustatzea, sentsazio onarekin joatea eta berriro bueltatzea. Horretarako, bezeroekin harremanak edukitzeko hainbat aukera ezarri ditugu:

Hasteko **SARE SOZIALAK**: Garrantzi handiko atal bat, produktuak erosteko eta saltzeko munduan dagoen aukera, geroz eta gehiago erabiltzen hari dena. Sare sozialei esker gure bezeroen “feedback”-a jaso ahalko dugu eta gure produktuak zintzilikatuko ditugu bezero berri gehiago lortzeko.

Bigarrenik **WEB ORRIALDE BAT** jarriko dugu gure produktuak erosi ahal izateko, produktua itzuli ahal izateko arazo bat baldin baduzu edo edozer gauza jakiteko enpresari buruz. Beste alde batetik, web orrialdean gurekin harremanetan jarri zaitezke, zure dudak azaltzeko eta arazo bat baldin baduzu, produktuarekin laguntzeko.

Azkenik **ASISTENTZIA PERTSONALA** jarriko dugu: Bezeroak pozik joatea da puntu honen helburua, gure produktua geroz eta gehiago ezagutzeko gure produktua eta bezero berriak edukitzeko.